

1619ko Tolosako gaztelaniazko paskinak eta Elduaingo euskarazko bertso iraingarriak¹

The Spanish lampoons of Tolosa and the Basque offensive verses of Elduain: two texts of 1619

Gidor Bilbao Telletxea*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: With the aim of contextualizing the text of the verses that bascologists have known under the title of «Lampoons of Tolosa of 1619», we have analyzed all the documents of the process in which they were collected, and have clarified that the offensive verses in Basque that begin *Adarrac emaiten dira Miraballezen...* are not part of the lampoons that appeared in Tolosa (which were written in Spanish), but were found in the house of Joan Olaondo, priest of Elduain, along with many other documents, in one of the searches for the author of the lampoons of Tolosa. We have published all the documents collected in the search of the curial house of Elduain and we have made a special effort to fix the text of the offensive verses in Basque. We have tried to clarify who was the author of the verses in Basque, but we have not reached any definitive conclusion: the priest of Leaburu Joan Otazu was the main accused in the process, but the experts who analyzed the handwriting of the verses in Basque cited the priest of Lizartza Pedro Olazabal Mendigibel and the neighbor of Tolosa Domingo Katategi. Additionally, we have shown that in Tolosaldea, at the beginning of the 17th century, the use of verses in Basque and Castilian, both written and improvised, were frequent in the confrontations between neighbors.

KEYWORDS: 17th century; old texts in Basque; offensive verses; Tolosaldea.

¹ Unibertsitateko ikasle nintzela ezagutu nuen Jose Ignacio Hualde (Bermeoko indigena moduan grabatu zuen nire ahotsa, Estatu Batuetatik etorritako ikertzaile hark); beti miretsi dut zein ondo jakin duen baliatzen ikerketari urruntasunak eskaintzen dion perspektiba, gertutasuna galdu gabe. Artikulu hau MINECOren *Monumenta Linguae Vasconum 6: Periodizazioa eta kronologia* (PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren baitan egin da, Eusko Jaurlaritzak babesturiko *Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia. DLTB* (IT1534-22) ikerketa-taldean.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Gidor Bilbao Telletxea. Ikasketa Klasikoak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatearen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – gidor.bilbao@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0001-9333-6571>

Nola aipatu / How to cite: Bilbao Telletxea, Gidor [2023]. «1619ko Tolosako gaztelaniazko paskinak eta Elduaingo euskarazko bertso iraingarriak», *ASJU*, 57 (1-2), 141-163. (<https://doi.org/10.1387/asju.25919>).

Jasoa/Received: 2022-09-15; Onartua/Accepted: 2022-12-16.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

LABURPENA: Artikulu honetan, euskalariak «1619ko Tolosako paskinak» izenburuarekin ezagutu dituzten bertsoen testua bere testuinguruan kokatzeko asmoarekin, bertso horiek bildu zituen prozesuko dokumentu guztiak aztertu ditugu, eta argitu dugu Adarrac emaiten dira Miraballesen... hasten diren euskarazko bertso iraingarriak ez direla Tolosan agerturiko paskinetakoak (zeinak gaztelaniaz idatziak baitziren), baizik eta, gaztelaniazko paskin horien autorearen bila ari zirelarik, Joan Olaondo Elduaingo apaizaren etxean aurkituak, beste hainbat dokumenturekin batera. Elduaingo apaiz-etxearen miaketan bilduriko dokumentu guztiak argitaratu ditugu, eta ahalegin berezia egin dugu euskarazko bertso iraingarrien testua finkatzeko. Euskarazko bertsoen egilea nor izan zen argitzen saiatu gara baina ez dugu ondorio eztaba daezinik atera: Joan Otazu Leaburuko apaiza zen prozesuan akusatu nagusia, baina prozesuko komisarioaren aginduz euskarazko bertsoen letrakera aztertu zuten adituek Pedro Olazabal Mendigibel Lizartzako apaiza eta Domingo Katategi Tolosako bizilaguna aipatu zituzten. Bestalde, erakutsi dugu Tolosaldean, XVII. mendearen hasieran, euskarazko eta gaztelaniazko bertsoak erabiltzen zirela bizilagunen arteko liskarretan, hala idatziak nola bat-batekoak.

GAKO HITZAK: XVII. mendea; euskarazko testu zaharrak; bertso iraingarriak; Tolosaldea.

1. Sarrera

Jose Mari Satrustegiren 1959ko eta 1960ko hiru artikuluren bidez (Satrustegi 1959, 1960a, b) jakin zen lehenengoz Iruñeko Katedralaren Artxiboan euskararen historiarentzat gordetzen diren altxorretako baten berri. Satrustegik lehenengo biak baliatu zituen eskuizkribu osoaren berri emateko, eta «Versos satíricos vascos del año 1619» izenburu zehatza jarri zion *Príncipe de Viana* aldizkarian argitaraturikoari (1960b), zeinetan eskuizkribu horretan bilduriko euskarazko bertsoen edizioa eta azterketa zehatza egin baitzuen lehenengoz. Satrustegiren hiru artikulua orotara hartuta, euskarazko bertsoen aurkezpena ez ezik eskuizkribu osoaren aurkezpena ere aurkituko du irakurleak.²

1964an, Koldo Mitxelenaren *Textos Arcaicos Vascos* gogoangarrian, euskarazko bertsoen berrirakurketa argitaratu zen, «Pasquines de Tolosa» izenburuarekin (Mitxelena 1964: 127-131). Geroztik, euskal filologoen artean izen horrekin ezagutu dira euskarazko bertso horiek: 1619ko Tolosako paskinak. Mitxelenak zioen testua bere testuinguruan ulertzeko akaso lagungarri izan litekeela dokumentuaren 500 orrialdeak arretaz irakurtzea eta, hirurogei urte geroago, Iruñeko Katedralaren Artxibora itzuli gara, hain zuzen hori egitera.

2. Gaztelaniazko paskina

Iruñeko Katedralaren Artxiboan, prozesuen ataleko 702. kutxan («Prozesuak: Tolosa 1620, 702.1»), noizbait prozesu osoa bildu zuen txostenaren hiru faszikulu geratzen dira: 1) 106-143 orriak; 2) 224-243 orriak; 3) 428-499 orriak. Bistan denez, prozesu osoak 500 orri baino gehiago zituen, ezagutzen dugun 499. hori ere ez baita azkena; hots, horren ondoren ere gehiago galdu dira, ez asko seguruenik. Guregana

² 1987ko *Euskal Testu Zaharrak I* bilduman, Satrustegik (1987: 39-41) berriz argitaratu zituen euskarazko bertsoak eta testuaren irakurketa moldatu zuen Mitxelenaren proposamenen argitan, baina ez zuten dokumentuari buruzko informazio berririk gehitu.

iritsi direnak ez dira komisarioak, rezeptoreak, idazkariak edo prokuradoreek idatziriko eta bilduriko jatorrizko dokumentuak, horien guztien kopia bat baino, baina zalantzarik gabe garai hartan egina. Lehenengo dokumentuak 1619ko urriaren 30eko data du (107bis v) eta azkenak 1620ko maiatzaren 18koa (497v). Litekeena da kopia osoa Miguel de Olo idazkariaren bulegoan egina izatea,³ eta badakigu Olo hau 1614tik 1633ra izan zela Iruñeko eliz artxiboko idazkari (Sales 2004: 22).

Prozesua Antonio Olazabal⁴ tolosarrak Joan Otazu Leaburuko erretorearen kontra abiarazitakoa da, eta Iruñeko Gotzaindegiko fiskalak beretzat hartua (113v-115v). 1619ko irailaren 27an, Tolosako hormetan, gutxienez hiru lekutan, eskribauaren kontrako paskin iraingarriak agertu ziren. Gainera, eskribauaren etxe-aurrean, haren familiaren armak ezabatu zituzten, eta zakil bat (edo zakila irudikatzen duen esku-keinua) eta adarrez hornituriko elizgizon-txanoa marraztu.⁵ Antonio Olazabalen ustez Joan Otazu zen horien guztien egilea, lehenago ere harekin liskar larriak izan zituelako,⁶ eta haren kontrako salaketa jarri zuen. Hormetan agerturiko paskinetako bat Tolosako alkateak hartu zuen, eta prozesuan txertatu zen jatorrizkoa, orain galdua: «entregue al mismo comisario uno de los libelos originales, pues son tres y de un mismo thenor y letra» (107r eta 115r).⁷ Baina guregana iritsi den zatian, badago horren kopia osoa (107bis.v-108v):

³ Ikusi, adibidez, 430v orrialdekoa: «Por traslado, Miguel de Olo, secretario».

⁴ Prozesuan etengabe aipatzen da «Antonio de Olaçabal, escribano y fiel del Consejo de ella» edo «vezino de la dicha villa de Tolosa». Behin aipatzen da Altzon ere bazuela etxea: «es mal quisto y aborrecido en la dicha villa [de Tolosa] y en la de Alço donde también es vezino» (431r). Beste toki batean aurkitu dugu Tolosako alkate izana zela: «siendo alcalde el dicho Olaçabal de la villa de Tolossa» (466r). Emaztearen izena ere leku bakarrean aurkitu dugu: «doña María López de Vidaror, su muger». Erregistrotako sakramentalen artxiboan, bien alaba baten jaiotza-agiria aurkitu dugu, 1587-05-10ean («Madalena Olaçabal Vidaor»). Dirudienez, Antonio Olazabal 1593-09-29tik 1594-09-28ra bitartean izan zen Tolosako alkate, eta Gipuzkoako diputatu nagusi ere izan zen 1603an, 1609an, 1610ean, 1613an, 1618an eta 1623an (Telleria 2011: 574).

⁵ Gertakizunen laburpenik argiena 238v orrialdean dago: «Pruébase por los 1, 2, 3, 4 y otros testigos examinados por los alcaldes de la villa de Tolossa y ratificados ante mí, que en la villa de Tolosa, en tres puestos, afixados en paredes con engrudo, se allaron tres papeles y los libelos infamatorios de un thenor cuyo traslado ba en la información d'esta caussa, el sábado por la mañana, víspera del señor San Miguel de septiembre último passado del presente año, por la mañana, beinte y ocho del dicho mes. Y también los testigos 12, 13 y otros bieron borrados con tinta y otros materiales las armas de Antonio de Olaçabal sobre la puerta de su cassa; y una yga en la celogía d'ella, de la misma tinta; y debaxo de la bentana de su escritorio, un bonete de clérigo; y sobre él, dos rasgos de la misma tinta, a modo de cuernos. Todo en offensa de honrra y reputación del dicho Antonio de Olaçabal y su muger, siendo como son de los honrrados y principales de la villa de Tolosa». 114r-114v orrialdeetan ere irakur daiteke, prozesuaren hasieran.

⁶ «A los veinte y siete de agosto próximo passado, se presentó una querrela ante vuestra merced contra el dicho rector por el fiscal y Antonio de Olazabal, vecino de la dicha villa, haziéndole cargo de haber dicho al dicho Olaçabal que desseaba tirarle una saeta y passarle el corazón, y que aún no sabía lo que había y por qué había de poner en su cassa las armas de Olazabal» (114r). «Este testigo a oído por notorio y público a algunos de la dicha villa que don Joan de Otaçu, rector de Leaburu, y el dicho Antonio de Olaçabal, abrá tres messes poco más o menos que reñieron en Leaburu, y que las mismas palabras que le dixo el dicho rector al dicho Antonio de Olaçabal al tiempo contenían en el libelo o libelos infamatorios que se a hallado en la dicha villa en veinte y ocho de septiembre húltimo pasado» (239v).

⁷ Guztira hiru paskin agertu ziren, hortaz: bat Nafarroako atean, bigarrena Kale Nagusian, Joan de Iurramendiren etxeko atean, eta hirugarrena Traviesas kalean, Antonio Olazabalen etxearen ondoan. Baina prozesuan zehar, gehienetan, «el libelo» aipatzen da (eta batzuetan «los libelos»), dirudienez denak berdintsuak zirelako (gaztelaniazko testu beraren aldaerak zirela esango nuke).

Un espurio mal havido, hijo de puta y San Pedro, pretende que fue nacido en Olazabal ⁸ su agüelo.	
La opinión común y fama a boçes lo contradixe por las calles, y se diçe del solar no tener rama.	5
Y con alto pensamiento ha puesto en cassa las armas, de las más illustres famas que en esta Guipuzcoa sientio.	10
Y por estar muy sentidos los dueños de estos blasones, mandan que con cagajones por tierra sean batidos.	15
Quite buen barón las armas y el blasón, pues no le tubo el clérigo más agudo que nació en estas montañas.	20
Este fue el genitor fijo, Caín, que por ser su padre deciende de tan ruin madre, más que entrambos ruyn el hijo.	
Tiñoso, ruyn, fementido, cornudo de obra prima, de quando toca tanta estima mire bien lo que a adquirido.	25
Ponga bonete con cuernos en la frente de su cassa, pues jamás medida y tassa se tubo con honbres buenos.	30
E los ponga, pues los tiene, por plumas en su celada, y con ellos bien te biene pelear en el armada.	35
Todo aquesto bien consiente y de nada no se admira, porque es cossa suficiente agradar a Doña Elbira.	40

⁸ Olazabaldarren Altzo Azpiko oinetxeaz ari da, zalantzarik gabe, han kokatzen baita Olazabal ahaide nagusien jatorria. Olazabaldarrei buruz, ikusi Aguinagalde (1998).

Desto pido que se sienta
el sacrilegio nacido
y passar con menos quienta
del ladrón el apellido.

Esto baste para todos 45
y abátase el noble traje,
que es ynfamia que se ultraje
quien deciende y no de godos.

Y si de esto por la calle 50
este hombre tan coquín
lebantase algún motín,
en bivo fuego abrasarlle.

Mucho vale la paciencia,
que es de sabios no sentillo 55
sino lleballo en paciencia,
porque cantada el que lillo.

Para Antoncho de Ayn⁹ y Olazabal, y Doña Lánpara su conbenienta muger. De pocos siglos vivan.

Este papel se alló fijado a la puerta que llaman de Nabarra por el señor alcalde, y su merced le mandó quitar y quitó, biéndolo Joan de Yurramendi y Domingo de Çatategui, Joanes de Liçardi y otros muchos vezinos de la villa de Tolosa, y su merced lo firmó juntamente con los sobredichos, y se quitó entre ocho y nueve oras de la mañana y día sábado, beynt y ocho de septiembre de mill y seiscientos y diez y nueve. Don Joan de Yriarte. Joan de Yurramendi. Domingo de Çatategui. Joanes de Liçardi. Miguel de Buztango.

Hori da, hortaz, eta ez beste, Tolosako hormetan, hainbat kopiatan, 1619ko irailaren 27ko gauean agertu zen paskina.¹⁰ Paskinean, funtsean, Antonio Olazabalen aurkako bi irain agertzen dira: Olazabaldarren leinukoa ez izatea eta adarduna izatea. Horren egilea zein zen jakiteko abiarazitako ikerketan, bi ziren ikerketa-lerro nagusiak: paskina zeinen eskuz eta letraz idatzia zen jakitea,¹¹ eta halako poema bat idazteko gaitasuna zeinek izan zezakeen erakustea. Susmagarri nagusia Joan Otazu Leaburuko erretorea zen hasieratik, eta, harekin batera, Lizartza, Gaztelu, Elduain, Altzo eta inguruetakoa apaiz-lagunak. Iruñeko eliz auzitegiko komisarioak horien guztien etxeak arakatu zituen, paperen bila: paskinetako bertsoekin erlazonaturiko paperak eta, oro har, Joan Otazuren eskuz idatzirikoak bilatzen zituzten (117r). 1619ko azaroaren 6an, Leaburuko apaizaren etxea arakatu zuten (118v-119v), eta han, beste paper batzuen artean, Tolosako paskinetako 12. eta 13. kuartetak kopiatuak zituen paper bat aurkitu zuten; ondorioz, hura kartzelaratzeko agindua eman

⁹ Uste dugu gaztelaniazko behe-mailako *ahín* 'ahí' dela, 'hor nonbaitekoa' adierazteko.

¹⁰ Euskarazko beste paskinik izan zitekeenik ez da prozesuan inon aipatzen, baina, lekuko baten arabera, gau horretan euskaraz kantatzen ibili zen gizon-talde bat: «ruidos de gente que parecía andaban dançando con canto de bascuence» (143r-143v).

¹¹ «Os mande dar trespado dignado y puesto en debida forma, y uno de los carteles del libelo, para que báis prosiguiendo las buestras, en las cuales haréis asimismo conprobación de la letra del dicho cartel» (117r).

zen (120r-120v). Lizartzako apaizaren etxean ez zuten ezer interesgarririk aurkitu (120v-121r); Ibarako apaizaren etxean, Joan Otazuk eskuz idatziriko hainbat paper hartu zuten (121r-121v); baita Tolosako Luberiaga apaizaren etxean ere (134r-135r). Paper horien guztien testua transkribaturik aurkitzen dugu prozesuan, bakoitza bere arakatzeko-autoaren ondoren. Paper-bilketarik handiena eta interesgarriena, zalantzarik gabe, Joan Olaondo Elduaingo apaizaren etxean egin zen, Elduainen, 1619ko azaroaren 7an, hor agertu zirelako, beste idatzi batzuen artean, euskarazko bi bertso-sortak.

3. Joan Olaondo Elduaingo apaizaren etxeko paperak

1619ko azaroaren 7an bete zen Joan Olaondoren Elduaingo apaiz-etxea arakatzeko agindua:

Auto de escudriño en Elduayn.

En la villa de Elduayn, a siete días del mes de noviembre del año mill y seiscientos y diez y nueve, yo, el comisario infraescrito, en compañía del sobredicho Joan de Trebiño, algoacil mayor d'este obispado, haviendo ido personalmente a la dicha villa, cassa y abitación de Don Joan de Olaondo, presbítero beneficiado de la parrochial de la dicha villa, la reconozí e hize escudriño en sus libros y papeles, así en sus escritorios, arcas, como las demás partes necesarias de la dicha cassa; y en algunos faxos de papeles allí los que ban juntados con los demás autos e información en razón de los libelos infamatorios sobredichos, que son de las letras señaladas en los mismos papeles allados: A, B, C, D, d, e, f. A todo lo cual se alló también presente el licenciado Çumarritzta, retor de la parrochial de la dicha villa. Y en fee de verdad, todos lo firmamos. El licenciado don Cristobal de Çumarritzta. Joan de Trebiño. Ante mí, Joan de Huarte, notario y comisario (121v-122r).

Joan Huarte notario-komisarioak, hortaz, sei edo zazpi («D» eta «d» bitan edo batean kontatzearen arabera) dokumentu bildu omen zituen Elduaingo apaizaren etxean, eta «A, B, C, D, d, e, f» markekin gorde zituen, eranskin gisa. Eranskin horiek, ez dago esan beharrik, ez ditugu ezagutzen, baina dokumentu horien testu osoaren kopia litzateke ondoren datorrena. Ez da erraza jakitea dokumentu bakoitza non hasi eta non amaituko zen Joan Huarte komisarioaren ustez, baina guk honako mul-tzo hauek bereiziko genituzke:¹²

- 1 (komisarioaren «A» eranskina). Joan Otazuk 1618ko irailaren 5ean sinaturiko gutuna, gaztelaniaz (122v-123r). Printzipioz, ez luke inolako erlaziorik prozesuan aztertzen denarekin, baina Joan Otazuren eskuz eta letraz idatzia delako bildu bide zen. Dena den, interesgarria da, gero ikusiko dugun zerbaitengatik, gutunaren edukia: Leaburuko apaizak alopezia-arazoak ditu eta hartarako sendagai bat eskatzeko idazten du gutuna.
- 2 (komisarioaren «B» eranskina). Hemeretzi sextilla, *ababab* errimakoak, gaztelaniaz (123r-124r). Ez daude sinaturik, ondoren datozen latinezko lerroetakoa hitzez hitz ulertu behar ez bada, sinadura bezala: *Ego Joanis* 'Ni, Joan'. Ez

¹² Letren esleipena guk egin da eta ez da ziurra. Nolanahi ere, euskarazko bertso-sortak D edo d leterekin izendatu beharko liratekeela dirudi.

da gauza ziarra Tolosako hormetan agerturiko paskinekin erlazonaturik ote dagoen ala ez. Zazpigarren sextillan agertzen den *Antón*, izan liteke, baina ez ezinbestean, Antonio Olazabal:

Perdónete Dios, Antón,
que este ingrato malablado
oy hiziera su carbón
y no alçara por blasón
aberos bituperado
en la casa del patrón.

Nolanahi ere, beste bertso iraingarriren batzuentzako erantzuna dira, eta euskarazkoetan agertzen den *Miraballes* agertzen da hemen ere, hamargarren sextillan:

El primero Miraballes,
porque tiene más razón,
se condena por las calles
a sacar el corazón
y también allá en él falles,
le encasqueten un tiçón.

No sé si es marta o pelleja;
en el barrio de Bidarte
cada día una pendeja
se pasea y no soy parte;
Con quien be, como coneja
se menea el *azpitarte*.

Gure ustez Legorretako baserria da Miraballes, eta bertsoegileak hain zuzen Legorretako Bidarte auzoan kokatzen du *azpitarteari* untxi-emeek bezala eragiten dion *pelleja* ‘emagaldua’.¹³ Hamazazpigarren ahapaldiak Tolosako kale nagusietako batean kokatzen du zigorra, hain zuzen Gaztelako Atetik Naparratera doan Zerkausia kalean:¹⁴

Sobre un asno sin orejas
le pasen por *Cerca Aussia*,
con plumas asta las cejas,
el pregón yendo con guía,
tirándole dos mil tejas,
gritando «alcagüetería».

— 3 (komisarioaren C eranskina). Hirugarren dokumentua (124v) Agustín de Rojas Villandrando (1572-1635) Madrilen 1603an argitarara emaniko *El viaje*

¹³ Hiztegitan ez dugu aurkitu *azpitarte* sarrera, baina bistan da emakumearen hankartea aipatzeko erabili dela hemen.

¹⁴ Esan dezagun, bide batez, hau litzatekeela *Zerkausia* kale-izenaren lehenengo agerpen idatzia, hurrengo 1662koa bailitzateke (Goikoetxea & Elosegí 2006: 339-340). Bestalde, arazo gehiago daukagu bertso hauetako beste izen batzuk kokatzeko: ez dakigu zein litzatekeen 79. bertso-lerroko *el baquero de Morana* edo 91. bertso-lerroko *Argain* (izen hori duen mendi bat dago Andoainen, baina toponimia txiki-kiko beste edozein leku-izen nahiz baserri-izen ere izan liteke).

entretenido liburuko paratestuen eta bi poemaren egokitzapen irrigarria da, *El pensamiento entretenido* izenarekin, gaztelaniaz hau ere. Liburua *Antón Cornamental*-en inprentan argitaratua litzateke, eta ustezko egilea *Moyssen Varbadillo*, gero hain zuzen Moisen horren kontra egiten bada ere: «Y para Moysén, una iga del gurullado». Zaila da ez pentsatzea ustezko inprimatzailea Antonio Olazabal adarduna izan litekeela, eta ustezko idazlea Joan Otazu, jakinik alopezia-arazoeekin larritua zela, 1618ko irailaren 5eko gutunean agertzen duenaren arabera (cf. *supra*). Lehenengo poeman, hamaika bertso-lerrotan jatorrizkoari jarraitu ondoren, lau bertso-lerro gehitzen ditu zentzua aldatzeko; gure ustez, inportanteena da, poema honetan bezala, euskarazko lehenengo bertso-sortan ere Moisen agertzen dela: 1.3-4 «ceruetaric etorri da Moissen / eguia esatera Errazquinen». *El pensamiento entretenido*-ko bigarren poema oso beselakoa da eta ez diogu ikusten erlaziorik prozesuko beste ezerekin: Agustín de Rojas Villandrandonen poema aldatzen du San Damiango markesa goraitzeko, hots Alonso Idiakenez Butroi-Muxika (1564-1618), Nafarroako Erregeordea (1610-1618) eta Gipuzkoako Kapitain Nagusia, hain zuzen Olazabalderen oinordekoa (aitona Alonso Idiakenez Iurramendi Idiaketzarra Grazia Olazabal Olazabaldarrarekin ezkondu baitzen, Gipuzkoako bi familia handiak lotuaz).

- 4 (komisarioaren D eranskina). Ondoren, euskarazko lehenengo bertso-sortaren orrialdean (125r), gaztelaniazko bederatzi bertso-lerro daude. Ez dago argi osotasun bat osatzen duten, ala sei gehi hiru diren, ala are poema amaitu gabekoa ote den. *Moysén inorante* eta *la gurullada* agertzeak lotzen du, nolabait, euskarazkoarekin, gaztelaniazko sextillekin eta *El pensamiento entretenido*-rekin.
- 5 (komisarioaren d eranskina). Gero, euskarazko bi bertso-sortak datoz, 125r-125v orrialdeetan. 126r orrialdeko latinezko lerroak ere aurrekoarekin lotzeko modukoak dira, izan ere ohitura baitu bertso-sorta guztiak latinezko lerro batzuekin amaitzeko. Kasu honetan, Bibliako 1. Korintoarrei 5, 6-7tik abiatuta, testua eta zentzua aldatzen du adar-kontuak deitoratzeko.¹⁵
- 6 (komisarioaren e eranskina). 126r-128r orrialdeetan, gaztelaniazko 47 kuarteta daude, *abba* errimarekin. Gaia eta estiloa oso hurbil dira sextilletakoarekin. Norbaitek bertso iraingarriak idatzi omen ditu adar-kontuez, ustezko idazlea bera adarduna izanik. Gainera zehaztasunez aipatzen dira emaztearen joan-etorriak, oraingoan apaiz dotore batekin, Alegian (101-116 bertso-le-

¹⁵ Bibliako testua honelatsu da, Vulgatan: «Non est bona gloriatio vestra: an nescitis, quod exiguum fermentum totam massam fermentat? Expurgate ergo vetus fermentum, ut sitis nova conspersio, sicut estis azymi: nam Pascha nostrum pro nobis immolatum est, Christus»; euskarazko Elizen Arteko Bibliaren itzulpenaren arabera, «Ez duzue batere arrazoirik harrotzeko. Ez al dakizue legami pixka batek ore guztia altxatzen duela? Bazter ezazue legami zaharra eta izan ore berri, legamigabeko bazko-ogiak bezala; izan ere, horixe zarete, Kristo gure Bazko-bildotsa opari eskainia izan denez gero». Honela aldatu du Tolosaldeko idazleak: «Non est vona gloriatio tua; netissi ita est quia multum / cornamentum corrumpit totum casamentum; / expurgare betus negotiammentum, / etsi is vonus pastor inter obes et tibi cantabunt Te Deum»; honelatsu euskaratuenez gendake ahuntz-latin hori: «Ez duk batere arrazoirik harrotzeko. Ez al dakik gehiegizko adarrek izorratzen dutela ezkontza oro? Negozio zahar hori ordaindu beharko duk, arditxoeren artean artzain ona bezala bahoia ere, eta Te Deum kantatzen badiate ere».

rroak);¹⁶ Tolosan eta Tolosako mutil gazteekin ere izan omen du enkontrurik (125-136 bertso-lerroak).¹⁷

- 7 (komisarioaren f eranskina). *Testamento de Celestina* izenarekin ezagutzen diren 168 bertso-lerro kopiatu dira 128r-130r orrialdeetan, kasu honetan inolako egokitzapenik gabe. Bertso ezagun horiek 1597an argitaratu ziren lehengoz Bartzelonan eta hainbat bertsiotan transmititu dira (cf. García de Enterría 1974; Perrián 1979; Lara 2006). Tolosaldeko bertsiok egitura eta luzera beretsua du, adibidez, Caravaggi (1981) lanean transkribiturik dagoen bertsiorekin (Erromako *Accademia dei Lincei* bibliotekako eskuizkribu batekoa). Celestinaren gaia behin baino gehiagotan agertzen da Elduaingo apaizaren etxean aurkituriko beste dokumentu batzuetan ere: sextilletan ere agertzen da *alcagüeteria* eta euskarazko bertsoetako batean Celestina bera. Nolanahi ere, Tolosaldeko izenik agertzen ez denez, pentsatu behar dugu agian letra eta eskua identifikatzeko iruditu zitzaizola interesgarri Joan Huarte komisarioari.
- 8 (komisarioaren g eranskina).¹⁸ Azkenik, Tolosako Naparratean agertu ziren paskinetako hamabigarren eta hamahirugarren kuarteten beste bertsiok bat agertzen da, oso aldaketa gutxirekin.

4. Nor da euskarazko bertsoen egilea?

Ez dakigu.

Esan den moduan, bi eratako paperak bilatzen zituen komisarioak arakaturiko etxeetan: Tolosan agerturiko paskinetako bertsoekin erlazonaturiko paperak eta, oro har, Joan Otazuren eskuz idatzirikoak, letra moldea konparatu ahal izateko (117r).

Euskarazko bertsoak Joan Olaondo Elduaingo apaizaren etxean aurkitu ziren,¹⁹ baina ez dakigu Joan Olaondok zer zioen euskarazko bertsoen edukiari edo egiletzari buruz; bakarrik dakigu Tolosan agerturiko gaztelaniazko paskinak idatzi izana ukatzen zuela. 1619ko azaroaren 11ko aginduz atxilotu zuten (110v) Antonio Olazabalek abiarazitako prozesuan, baina gero errugabetzat jo eta aske utzi zuten, eta are kalteordainak hari ordaintzea onartu zuten.²⁰ Kontua da horrek gutziak

¹⁶ «En Alegría, sospecho, / a do haze mucha jornada / de una bieja aconpañada / que tiene gusto su pecho. // Allí un sacerdote galán / dicen que el amor le haze, / y que a ella no desplaze / anda ya en común refrán. // Porque es en esta carrera / la embra tan cotidiana / que va allí en quada semana / dos vezes la virlotera».

¹⁷ «Y es que, marchando una noche / para ti en cierto camino, / llebó ella un descamino / y la dieron carricoche. // Sabiendo que por Tolosa / era su paso y su grada, / la esperó una camarada / y llebó burla donosa. // El dezirlo me amancilla, / mas no puedo dejarlo al fin; / della le dieron un botín / ciertos moços de la villa».

¹⁸ Prozesuko 241v orrialdean zehaztasunez identifikatzen da dokumentua: «el papel de la letra g que comienza *esto baste para todos* y acaba en *bivo fuego abrasarle*».

¹⁹ Ez daukagu beste informaziorik Joan Olaondori buruz. Elduaingo sakramentu-agiritan, Joan Olaondo baten heriotza-agiria dago, 1632-07-29an, seguruenik apaiz honi dagokiona, baina ez daukagu ziurtasunik. Nolanahi ere Olaondo Tolosaldeko abizena da urte horietan (1550-1600 tartean, Berastegin eta Gaztelun agertzen dira bataio-agiri gehien; eta 1620-1650 tartean, Elduainen eta Gaztelun heriotza-agiri gehien).

²⁰ Hona Olaondoren prokuradorearen eskaria: «no a resultado culpa alguna contra el dicho don Joan de Olaondo [...]. Combien sea restaurado declarándose por vuestra merced ser sin culpa en

ez duela ezer frogatzen, gure proposamenaren arabera euskarazko bertso-sortak ez zirelako prozesuaren muina, eta are, seguruenik, ez zutelako zerikusirik Antonio Olazabalekin.

